

2018KO ABENDUAREN 20AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARIAREN IZENDAPENARI BURUZKO ERABAKIA.
- 2.- ARTXIBOKO EGUNERATZEKO LANEI BURUZKO TXOSTENAK.
- 3.- OSTATUKO ZERBITZUAK EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN ZIURTAGIRIA.
- 5.- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ARTEAN LAGUNTZAK BANATZEKO DEIALDIA.
- 6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARIAREN IZENDAPENARI BURUZKO ERABAKIA.

Zegamako Bake Epaitegiko Idazkari titularra betetzeko bideratu den espedientea ikusirik.

Kontuan izanik idazkaritza horren gaurko titularrak, Ainara Esnaola Ormaechea andereak, kargua uzteko eskaera idatzia aurkeztu duela, 2018ko abenduaren 14ko datarekin, aurrez, Zegamako langilea izateari utzi diolako.

Bake justiziar buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuak bere II. Kapituluaren adierazten duenaren arabera, Udalak kargu hori betetzeko pertsona egokia izendatu behar du.

Udaleko langilegoaren egoera ikusirik eta izendapen aukerak aztertu ondoren, bideragarria iritzi da, eta honela adostu da izendatzea proposatzen den pertsonarekin, Lierni Asurabarrena Zipitria (72.474.562K NA) anderea, Zegamako Bake Epaitegiko idazkari titular bezala izendatzea, pertsona honek eskatutako gaitasuna duelako eta baldintzak betetzen dituelako kargu hori hartzeko.

Horretarako eman den txosten teknikoa ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko bost kideen eta EH Bildu taldeko etorritako hiru kideen aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenena.- Aurkeztutako uko egite idatzia aurkeztuz, Zegamako Bake Epaitegiko Idazkari titular bezala, Lierni Asurabarrena Zipitria (72.474.562K NA) izendatzea.

Bigarrenena.- Uko egite proposamena eta izendapena, Justizia Administrazioarekiko harremanetan aginpidea duen Zuzendaritzari jakinaraztea.

Hirugarrenena.- Idatzi hau doakienei jakinaraztea.

2.- ARTXIBOKO EGUNERATZEKO LANEI BURUZKO TXOSTENAK.

Espedientea ikusirik.

Toki Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, Zegamako udal agiritegia sendotu eta egonkontzeko lana, kontratu-txikien prozedura erabiliz, Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresari esleitzea erabaki zuen, 14.000,00 eurotan gehi 2.940,00 euro BEZ (16.940,00 euro BEZ barne).

Lan horiek burutu ondoren, Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresatik, lanen amaiera txostena eta xahuketa proposamena bidaltzen da.

Era berean, lanen faktura aurkeztu da, 14.000,00 eurokoa gehi 2.940,00 euro BEZ (16.940,00 euro BEZ barne) (228 faktura zenbakia).

Horrenbestez, eta jarraitu beharreko prozedura ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Esleitutako lan horien arabera, Ereiten Kultur Zerbitzuak helarazitako amaiera txostena eta xahuketa proposamena onartzea.

Bigarrena.- Adierazitako faktura onartzea, fakturaren gastua onartzea, 1.0000.643.03.332.20.2018 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratzea.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

3.- OSTATUKO ZERBITZUAK EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak, Ostatuaren zerbitzuak emateari buruzko espedientearen egoera azaltzen du.

Zentzu horretan, aurkeztutako lizitatuazileari kontratua burutzeko agirien eskaera egin ondoren, horien aurkezpena, araudiak ezarritakoa baino gehiago luzatzen ari dela adierazten du.

Udalbatzarkideak, administrazio baldintzen pleguan adierazitakoa ikusirik, era honetako kontratuak gauzatzeko ematen diren zailtasunak aipatuz eta horiek kontuan hartuz, ontzat ematen dute adierazitako agirien aurkezpena luzatzea.

4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN ZIURTAGIRIA.

Udalbatzarrak, 2017ko azaroaren 27an egin zuen bilkuran, 11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren barnean jasotako lanak burutzea (indusketaren barnean burutu beharreko indusketaren jarraipenaren eta analitiken laguntza tekniko barne), Lurkide Hondalanak S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen, 188.792,90 euro gehi 39.646,51 euro (BEZ), guztira 228.439,41 eurotan (BEZ barne) eta 14 asteko egite epearekin.

Lurkide Hondalanak S.L. enpresak, lan horien honako lan ziurtagiriak aurkeztu ditu:

- Hirugarren lan ziurtagiria: 196 faktura zenbakia, 50.849,68 eurokoa (BEZ barne).
- Laugarren lan ziurtagiria: 207 faktura zenbakia, 9.500,93 eurokoa (BEZ barne).

Era berean, Alkateak, lanen garapen eta aurreikuspenei buruzko azalpenak ematen ditu.

Gastua bideratzeko beharrezkoa den aurrekontu nahikoa jasota dago Udal aurrekontuan, 1.000.601.01.162.10.2017 eta 1.000.643.03.463.00.2016 aurrekontu sailetan.

Fakturak, agiri teknikoak eta burututako lana ikusirik, horiek ontzat emanez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako fakturak onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, adierazitako aurrekontu sailei egotziz, eta ordainketa bideratzea.

5.- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ARTEAN LAGUNTZAK BANATZEKO DEIALDIA.

Zegamako Udaleko Udaltzarrak, 1999ko abenduaren 13an, "Herrialde behartsuenekiko lankidetzeta programa eta dirulaguntzak banatzeko Araudia" onartu zuen eta 2001eko azaroaren 5ean, honen aldaketa.

Araudi horretan ezarritako erizpideak eta baldintzak jarraituz (5 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren alean, 2000ko urtarrilaren 10ean eta 235 zenbakia duen alean 2001eko abenduaren 10ean argitaratuak), Udaltzarrari 2017ko urteari dagokionez 4.750,00 euroko dirulaguntza banatzea proposatzen zaio,

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, aho batez honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako Araudia jarraituz, 2017ko ekitaldiari dagokionez, 4,750,00 euroko dirulaguntza banatzea, honen gastua, 2018. urteko aurrekontuaren 1.0000.481.02.334.30.2018. aurrekontu sailaren kargu egingo delarik.

Bigarrena.- Dirulaguntza eskaerak, Udaletxean aurkeztu ahal izango dira erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hilabete bateko epearen barnean.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkutatik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du.

7.- GALDE ERANTZUNAK.

- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), dantzako irakaslearekin egindako bilera azaltzen du.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), Txarape auzoan Ur Zerbitzuak burutu dituen zenbait lanei buruz galdetzen du.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hogeitabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO